

GESTIOKO TEKNIKARIA (PREBENTZIOA) LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA-PROZESUA

2021eko URTARRILAREN 28ko ERABAKIA

Deialdiaren zazpigarren eta zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2021eko urtarrilaren 28ko erabakia), Gestioko Teknikaria (Prebentzioa) izeneko lan poltza zabaltzeko hautaketa-prozesuko epaimahaiak honakoa iragarri du:

2021eko azaroaren 4an argitaratutako merezimendu lehiaketaren eta euskararen faseetako behin betiko emaitzak argitaratzeko erabakiaren aurka, gora jotzeko bi errekurtsio aurkeztu dira, horretarako emandako epearen barruan, eta honekin batera doan eranskinean zerrendatu dira.

Era berean, epaimahaiak egindako eta egun berean argitaratutako hurrenkera-proposamenaren aurka, eta horretarako emandako epearen barruan, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu da, eranskin berean zerrendatzen dena.

Beraz, jakinarazpen hau egiten denetik hamar egun naturaleko epea irekitzen da prozeduran interesatu direnek egoki deritzeten alegazioak egin ditzaten,

Leioa, 2022ko urtarrilaren 10a



Jon Iradi Arteaga
Epaimahaiko lehendakaria